## LH prestakuntza erakargarria da (enplegagarritasuna), Gipuzkoan errotze eta presentzia handia duena, baina generoaren arabera oso segmentatua dagoena

Lanbide Heziketa gero eta erakargarriagoa da, izan ere, lanera bideratzen da eta enplegagarritasun altua du. Hala, Gipuzkoan matrikulazioak gora egin du etengabe, horren erakusle izanik:

-20/21 ikasturtean 13.772 pertsona matrikulatu dira EM eta GM zikloetan eta joera gorakorrari eusten dio 2003-04 ikasturteaz geroztik.

-Bi herenek goi-mailako LH aukeratzen dute, eta heren batek, erdi-mailako LH.

-Gipuzkoak EAEko EM eta GMko LHko matrikulazio osoaren herena baino zertxobait gehiago hartzen du.

-Matrikula horien bi heren sare publikoari dagozkio, eta urtez urte gero eta garrantzi handiagoa du.

-Soilik heren bat dira emakumeak, eta heziketa-ziklo jakin batzuetan kontzentratzen dira: irudi pertsonala (% 96,2), ehungintza, jantzigintza eta larrugintza (% 91,7), osasuna (% 77,2), elikagai industria (% 70), administrazioa (% 63). Aldiz, "industrialetan" ia ez dute presentziarik, hala nola fabrikazio mekanikoan (% 6,3) edo elektrizitate eta elektronikan (% 4,5).

-Lanbide Heziketan graduatutako ikasleen okupazio-tasa % 86,1ekoa da Gipuzkoan. EAE osoan lortutakoa gainditzen du (% 82,6).

-Sei udalerrik Gipuzkoako LHko matrikulazio osoaren % 60 hartzen dute: Donostia (% 25), Lasarte (% 9), Irun (% 8,5), Eibar (% 6,6), Errenteria (% 6) eta Tolosa (% 5,6).

## La FP es una formación atractiva (empleabilidad), con importante arraigo y presencia en Gipuzkoa, pero altamente segmentada según género

La Formación Profesional es cada vez más atractiva, gracias a su ajuste y orientación profesional y empleabilidad. Gipuzkoa muestra un incremento continuado en su matriculación, en tanto que:

-En el curso 20/21 las matriculaciones en GM y GS ascienden a 13.772 personas, con un perfil claramente creciente desde el curso 2003-04.

-Dos tercios se decanta por la FP de grado superior y un tercio, por la FP de grado medio.

-Gipuzkoa aporta algo más de un tercio de la matriculación total de la CAE en FPGM y FPGS.

-Dos tercios de estas matrículas corresponden a la red pública, que año tras año gana relevancia.

-Sólo un tercio son mujeres y se concentran en determinados ciclos formativos, como imagen personal (96,2%), textil, confección y piel (91,7%), sanidad (77,2%), industrias alimentarias (70%), administración (62,8%), y sin apenas presencia en los "industriales", como fabricación mecánica (6,3%) o electricidad y electrónica (4,5%).

-La tasa de ocupación del alumnado egresado en FP es del 86,1% en Gipuzkoa y supera al obtenido en el conjunto de la CAE (82,6%).

-Seis municipios absorben el 60% de la matriculación total de FP de Gipuzkoa: Donostia (25%), Lasarte (9%), Irun (8,5%), Eibar (6,6%), Errenteria (6%) y Tolosa (5,6%).

## Gipuzkoan Lanbide Heziketan matrikulatuta dauden ikasle kopuruaren bilakaera / Evolución del alumnado matriculado en la FP en Gipuzkoa




## LH-ko parte-hartzearen inguruko adierazleak, mailaren, sare-motaren eta generoaren arabera (%) / Indicadores de la participación en la FP, según nivel, tipología de red y género (%)

| | ratioa LHG/LH guztira / ratio FPS s/total FP | | Gipuzkoa EAErekiko/ peso Gipuzkoa/CAE | | Sarea / Red centro | | LHko emakumeen % / % mujeres s/total FP | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Gipuzkoa | Araba y Bizkaia | LHE / FPM | LHG / FPS | Publikoa/ Público | Pribatua/ Privado | Gipuzkoa | Araba y Bizkaia |
| prom. 03-04 a 07-08 | 63,5 | 58,5 | 30,7 | 35,4 | 57,5 | 42,5 | 40,2 | 42,2 |
| prom. 08-19 a 12-13 | 63,0 | 58,1 | 31,1 | 35,6 | 60,4 | 39,6 | 38,2 | 40,8 |
| prom. 13-14 a 17-18 | 62,1 | 58,1 | 32,0 | 35,8 | 62,5 | 37,5 | 34,2 | 37,2 |
| 2018/19 | 61,0 | 58,7 | 33,8 | 36,0 | 62,9 | 37,1 | 33,8 | 36,5 |
| 2019/20 | 61,2 | 58,5 | 34,6 | 37,2 | 64,0 | 36,0 | -- | -- |
| 2020/21* | 60,9 | 59,2 | 35,1 | 36,7 | 64,7 | 35,3 | -- | -- |

**Aurre matrikulazio datuak / Datos de pre-matriculación.*
*Oharra/Nota: LHE (LH erdi-maila) eta LHG (LH goi-maila) / FPM (FP medio) y FPS (FP superior)*
*Azken hiru ikasturteetan, urrutiko lanbide-heziketari buruzko matrikulazioa Gipuzkoan egin zen, baina ordura arte Araban zegoen. Matrikulazio hori bideratzen da, ez baitator bat (hertsiki) lurraldearekin / En los tres últimos cursos la matriculación relativa a la FP a distancia se adscribe a Gipuzkoa, que lo había estado en Álava. Se depura esta matriculación ya que no se corresponde (estrictamente) con el Territorio*
*Iturria/Fuente: Hezkuntza Saila. Eusko Jaurlaritza, Eustat eta Lanbide. / Departamento de Educación. Gobierno Vasco, Eustat y Lanbide.*